*El Grupo Técnico Interinstitucional formado para revisar el Instrumento BALORA y realizar propuestas de mejora se reunió en 4 ocasiones.*

Asociación Dartington-i elkarteak tresna berrikusteko egindako lana eta Erakunde arteko Talde Teknikoak proposamenak biltzen zituen txosten bat entregatu zuen eta, era berean, txosten hori ekainaren 18an izan zen haurrei eta nerabeei arreta emateko Batzorde Iraunkor Sektorialean.

*La Asociación Dartington-i entregó un informe con el trabajo desarrollado para la revisión del Instrumento y con las modificaciones propuestas por el Grupo Técnico Interinstitucional, y, asimismo, presentó dicho Informe en la Comisión Permanente Sectorial de atención a la Infancia y la Adolescencia celebrada en fecha 18 de junio.*

2.3. Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren Haur eta Nerabeen Batzorde Iraunkor Sektoriala kudeatzea eta dinamizatzea.

*2.3. Gestión y dinamización de la Comisión Permanente Sectorial de atención a la Infancia y la Adolescencia del Consejo Vasco de Servicios Sociales.*

Batzordea bi aldiz bildu zen: ekainaren 18an eta azaroaren 27an.

*La Comisión se reunió en dos ocasiones: el 18 de junio y el 27 de noviembre.*

Bi bileretan jorratu zen gai nagusia hau izan zen: adingabea babesteko sistema juridikoan estatuko araudi berriak txertatuko aldaketa garrantzitsuenak azaltzea, baita horiek erkidegoko araudian izango dituzten ondorioak ere. Orobat, hauek guztiak ere aipatu ziren: Zeuk Esan 116111 Zerbitzuak egindako zabalkunde-ekintza, Internet modu seguruan eta arduratsuan erabiltzen ikasteko egindako lana, alkohol-kontsumoaren prebentziora bideratutako ohitura osasungarriekin hezteko eta Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren beste ekintza batzuk.

*El tema principal que se abordó en ambas fue explicar las modificaciones más importantes introducidas por la nueva normativa estatal en el sistema de protección jurídica del menor, así como analizar su repercusión en la normativa autonómica. También se detalló la acción de difusión del Servicio 116111 Zeuk Esan llevada a cabo, el trabajo desarrollado para la educación en el uso seguro y responsable de Internet, así como para la educación en hábitos saludables dirigido a la prevención del consumo de alcohol, y otras acciones de la Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario.*

2.4. Haur eta nerabeen eskubideen gainean sentsibilizatzeko programa.

*2.4. Programa de sensibilización de los derechos de la infancia y la adolescencia.*

Azaroan 20an, Haurren Eskubideen Aldeko Egunean, urtero antolatzen da haurren eta nerabeen eskubideak sustatzera eta, oro har, herritarrak sentsibilizatzera bideratutako ekintza bat. 2015ean, prentsaurreko bat eskaini zen eta, bertan, haurren zein nerabeen ongizaterako tresna gisa 116111 Zeuk Esan zerbitzuak duen garrantzia adierazi zen eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan, martxan jarri zen zabalkunde-kanpainaren berri eman zen.

*Cada 20 de noviembre, Día de los Derechos de la Infancia, se organiza una acción dirigida a la promoción de los derechos de la infancia y adolescencia y la sensibilización de la población en general. En 2015, se ofreció una rueda de prensa en la que se expresó la importancia del Servicio 116111 Zeuk Esan como herramienta para el bienestar de la infancia y adolescencia, y se informó de la campaña de difusión puesta en marcha en colaboración con el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura.*

2.5. Internet erabiltzean haurren eta nerabeen jarrera arriskutsuen prebentziorako programa eta Internet erabiltzean haurrak eta nerabeak babesteko Euskal Sarea sortzea.

*2.5. Programa para la prevención de actitudes peligrosas de niños, niñas y adolescentes en Internet y creación de la Red Vasca de protección de la infancia y la adolescencia ante Internet.*

Lehenengo aldiz Safer Internet Day egin zen. Hala, DBHko ikasleentzako egON LINE gida aurkeztu zen eta

*Se celebró por primera vez el Safer Internet Day organizando una Jornada en la que se presentó la guía*

bertaratu ziren adingabeekin zein helduekin tailerrak egin ziren. Gurasoek beren seme-alabak Internet eta teknologia berriak seguru erabiltzen hezteko gida bat diseinatu zen.

*egON LINE para el alumnado de la ESO y se realizaron talleres dinámicos con menores y adultos asistentes. Se diseñó una guía dirigida a padres y madres para la educación de sus hijos e hijas en el uso seguro de Internet y las nuevas tecnologías.*

«Adingabeak eta Internet» Euskal Sarea kontsolidatu egin da. Hiru aldiz bildu da, SharePoint (barne-tresna) bat sortu zen elkarlanean lan egiteko eta beste bi eragile gehitu ziren: Datuak Babesteko Euskal Agentzia eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

*La Red Vasca "Menores e Internet" se fue consolidando, se reunió en tres ocasiones, se creó un SharePoint (herramienta interna) para trabajar de forma colaborativa y se añadieron dos nuevos agentes: la Agencia Vasca de Protección de Datos y la Dirección de Salud Pública y Adicciones.*

2.6. Nerabeen artean alkohol kontsumoa gutxitzeko ekintzak.

*2.6. Acciones dirigidas a reducir el consumo de alcohol entre la población adolescente.*

Osasun Sailarekin elkarlanean jardun genuen ekintza-plan bat egiteko batera. Gurasoentzako gida bat baloratu eta balioetsi zen, 8 eta 12 urte bitarteko beren haurrak ohitura osasungarriekin eta alkoholaren zein bestelako drogen kontsumoaren prebentzioan hezten laguntzeko. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin, Osakidetzarekin eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin bilera bat egin zen, horiek ekintza-planean sartzeko.

*Se colaboró con el Departamento de Salud para elaborar un plan de acción conjunto. Se valoró, y validó, una guía dirigida a padres y madres para ayudarles a educar a sus hijos e hijas de entre 8 y 12 años en hábitos saludables y prevenir el consumo de alcohol y otras drogas. Se realizó una reunión con la Dirección de Salud Pública y Adicciones, Osakidetza y la Dirección de Innovación Educativa para incluir a éstas en el plan de acción.*

2.7. Nazioarteko adopzioa.

*2.7. Adopción Internacional.*

Nazioarteko Adopzioaren lau Batzorde Tekniko egin ziren eta horietan hauek guztiak egiaztatu ziren: espediente gatazkatsuen egoera, adingabeen jatorrizko herrialdeen egungo egoera, Euskadiko ASEFA erakunde egiaztatuak bere jarduera eten izana eta Euskal Autonomia Erkidegoan (Bilbon) zuen egoitza itxi izana, eta MIMO eta AIPAME erakundeei Sailak 2012an eman zien egiaztagiria luzatu izana.

*Se celebraron cuatro Comisiones Técnicas de Adopción Internacional, en las que se contrastó la situación de expedientes conflictivos, la situación actual de los países de origen de los y las menores, la suspensión de actividad del Organismo acreditado ASEFA País Vasco y cierre de su sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco (sita en Bilbao), y la prórroga de la acreditación de los Organismos MIMO y AIPAME concedida por el Departamento en el año 2012.*

16 baimen izapidetu ziren beste autonomia-erkidego bateko nazioarteko adopziorako erakunde batek erabiltzeko. Bestetik, Euskadiko 7 familien kexak izapidetu ziren; izan ere, familia horiek adierazi zuten beren espedientea izapidetzen ari ziren erakundeek okerreko praktikak zerabiltzatela edo gardentasun-falta zutela.

*Se tramitaron 16 autorizaciones para el uso de un Organismo acreditado para la adopción internacional por otra Comunidad Autónoma y 7 quejas de familias vascas que reclamaban mala praxis o falta de transparencia a los Organismos con los que estaban tramitando su expediente.*

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak parte hartu du, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritzan, Familiarako eta Haurtzarorako Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiak (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Ministerioa) eta autonomia-erkidegoetako adingabeen babeserako erakunde eskudunek Etiopiako Emakume, Haurtzaro eta Gazteriako Ministerioko Haurren Babeserako (MOWA) zuzendari nagusiarekin izan zuten lan-bileran.

*Participación de la Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, en representación del Gobierno Vasco, en la reunión de trabajo entre la Dirección General de Servicios para la Familia y la Infancia (Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad) y las entidades competentes en materia de protección de menores de las Comunidades Autónomas con la Directora General de Protección a la Infancia del Ministerio de la Mujer, la Infancia y la Juventud (MOWA) de Etiopía.*

2.8. Arreta Goiztiarra.

*2.8. Atención Temprana.*

Arreta Goiztiarrerako Erakunde arteko Batzorde Teknikoa bi aldiz bildu zen koordinatzeko eta bideratzeko protokoloak diseinatzeko faseari hasiera emateko. Bilerak bertan behera gelditu ziren dekretu-proiektua onartu arte.

*La Comisión Técnica Interinstitucional de Atención Temprana se reunió en dos ocasiones para iniciar la fase de diseño de los protocolos de coordinación y derivación. Las reuniones quedaron suspendidas hasta que el Proyecto de Decreto fuera aprobado.*

3. Haurren eta nerabeen arloko koordinazioa Estatuko Administrazio Orokorrarekin.

Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritzan, Haurren Estatuko Behatokiaren baitan sortutako Lantalde Teknikoan parte hartu du. Hala, adingabeen babesaren arloko erakunde publiko eskudunen jarduketak koordinatzeko protokoloa egin da, babes-neurri juridiko (zaintza) baten mende dagoen adingabe bat autonomia-erkidegoen artean lekualdatu behar denean.

Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzan ordezkaritzan, parte hartu du Haurren Estatuko Behatokiaren baitan sortutako Lantalde Teknikoan, Haurren eta Nerabeen II. Plan Estrategiko Nazionalaren Bitarteko Ebaluazioa egiteko (2013-2016).

Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Haurren eta Nerabeen Behatokiaren ordezkaritzan, parte hartu du estatuko haurren Behatokiaren eta erkidegoetako zein tokiko Behatokien arteko Lankidetzako Batzordean.

*3. Coordinación en materia de infancia y adolescencia con la Administración General del Estado.*

*Participación de la Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, en representación del Gobierno Vasco, en el Grupo de Trabajo Técnico, creado en el marco del Observatorio Estatal de Infancia, para la elaboración del Protocolo de coordinación de actuaciones de las entidades públicas competentes en materia de protección de menores, en los casos de traslado de un menor sujeto a medida jurídica de protección (de tutela o guarda) entre Comunidades Autónomas.*

*Participación de la Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, en representación del Gobierno Vasco, en el Grupo de Trabajo Técnico, creado en el marco del Observatorio Estatal de Infancia, para la Evaluación Intermedia del II Plan Estratégico Nacional de Infancia y Adolescencia (2013-2016)*

*Participación de la Dirección de Política Familiar y Desarrollo Comunitario, en representación del Observatorio de la Infancia y la Adolescencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en la Comisión de Colaboración entre el Observatorio de la Infancia estatal y los Observatorios autonómicos y locales.*

### 3. EKINTZA BOLUNTARIOAREN ETA HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN SUSTAPENA

1. 2013-2016 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategia.

2015. urtean honako ekintza hauek egin ziren:

- Boluntariotzako erakunde sozialei komunikazioan laguntzeko plana. Egindako bederatzi saioetan, hiru lurralde bakoitzean, 100 erakundek baino gehiagok parte hartu zuten.
- Boluntariotzako webguneko edukiak eguneratu dira: Boluntariotzako Elkarteen Erroldan izena emandako erakundeak, diru-laguntzen deialdiak, bibliografia, garatutako ekintzei buruzko azken dokumentuak, etab.
- Ondorengo azterketaren ondorioak eta aurkezpena: «Partaidetza soziala eta borondatezko ekintza. joera berrien diagnostikoa eta identifikazioa, udal-azterketa kualitatibo batetik abiatuta EAEko hiru eremutan.»
- Boluntariotzaren ikuspegi tradizionalaz haragoko borondatezko partaidetza sozialaren moduen pluraltasunari buruzko mintegia. 2015eko ekainaren 26an egin zen eta boluntariotza-erakundetako, boluntariotza-agentzietako eta administrazio publikoetako 35 ordezkari izan ziren.
- Gazteen artean boluntariotza sustatzeko kanpaina. Bideo bat egin zen, bertan, azalpen-testu bat eta gobernuaren zein boluntariotza-agentzien webguneetara birbidaltzen zuten esteka batzuk zeuden.
- Boluntariotzari aitorpena egiteko ekintza. Lehendakaritzan egin zen 2015eko abenduaren 2an.

### *3. APOYO A LA ACCIÓN VOLUNTARIA Y AL TERCER SECTOR SOCIAL*

*1. Estrategia Vasca del Voluntariado 2013-2016.*

*Durante el año 2015 se llevaron a cabo las siguientes acciones:*

- *Plan de apoyo en comunicación de entidades sociales de voluntariado. En las nueve sesiones realizadas, tres en cada territorio, participaron más de 100 entidades.*
- *Actualización de los contenidos de la página web del voluntariado: entidades inscritas en el Censo de Organizaciones de Voluntariado, convocatorias de subvenciones, bibliografía, documentos finales de acciones desarrolladas, etc.*
- *Conclusión y presentación del estudio denominado "La participación social y la acción voluntaria. Diagnóstico e identificación de nuevas tendencias a partir de un análisis cualitativo municipal en tres zonas de la CAPV".*
- *Seminario sobre la pluralidad de formas de participación social voluntaria más allá de los tradicionales enfoques del voluntariado. Celebrado el 26 de junio de 2015, con 35 representantes de entidades de voluntariado, de agencias de voluntariado y de administraciones públicas.*
- *Campaña de promoción del voluntariado entre jóvenes. Realización de un vídeo con un texto explicativo y unos enlaces que redireccionan a las webs del Gobierno y de las agencias de voluntariado.*
- *Acto de reconocimiento institucional al voluntariado. Realizado en Lehendakaritza el 2 de diciembre de 2015.*

2. Elkarrizketa zibileko mahaia dinamizatzea.

2015. urtean hiru saio egin ziren, bi izaera arruntekoak (maiatzaren 20an eta azaroaren 23an egin ziren) eta hirugarrenak, berriz, aparteko izaera izan zuen (urriaren 7an egin zen). Azken horretan lehendakariak parte hartu zuen.

3. Boluntariotzaren Euskal Agentziak laguntzea eta sustatzea.

Hezkide Eskolari eta EDE Fundazioari diru-laguntzak eman zaizkie, boluntariotza bultza dezaten, Gizalde eta Bolunta elkarteen bitartez, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan.

4. Autornomia-esparruko sare edo federazioak sustatzeko eta indartzeko lana, benetan adierazgarriak diren eta gizarte-eragina duten sare edo federazioentzako hitzarmenen eta diru-laguntzen agindu baten bidez, gizarte-ekimeneko eta esku-hartzeko autonomia-esparruko sare edo federazioak eratzera bideratutako erakundeak indartzeko diru-laguntzei ere eutsiz.

Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru laguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan aurreikusitako deialdia egin zen. Esku-hartze sozialaren eremuan ekintza boluntarioa eta elkarteen parte-hartzea indartzeko jarduera-ildoaren esparruan, 146 proiektu aurkeztu ziren eta 67 erakundek garatutako 86 proiektuk jaso zuten diru-laguntza; gehien agertu ziren esku-hartze esparruak gizarteratzea, gizarte-zerbitzuak, eta desgaitasuna eta mendetasuna izan ziren.

Halaber, talde zaurgarrien alde lan egiten duten 24 elkarteri edo elkarteen federazioei eman zitzaizkien diru-laguntzak, jarduerak eta programak garatzeko.

5. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua dinamizatzea, babestea eta laguntzea.

2015ean Boluntariotza Euskal Kontseiluaren osoko bilkura bi aldiz bildu zen. Bere jardueren artean azpimarratzekoak dira; batetik, bertan erakundeek ordezkaritza izateko berritze-prozesua balioetsi izana eta, bestetik, ekitaldian garatu beharreko ekintzak onartu izana. Lantalde Iraunkorrak, bestetik, bederatzi bilera egin zituen osoko bileraren saioak orientatzeko eta prestatzeko, akordioak har zitezela proposatzea eta adostutakoa betetzen zela zaintzeko.

6. Hirugarren sektoreko erakundeentzako beste laguntza batzuk.

6.1 Bi diru-laguntza izendun eman zitzaizkion FUNDACIÓN EDE-EDE FUNDAZIOAri helburu hauekin:

• Egiten dituen jarduketetatik eratorritako gastuak finantzatzea Hirugarren Sektorearen Behatokiaren bidez eta, 2015. urtean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria egiteko. Eta, zehazki, Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria egiteko lan-

*2. Dinamización de la Mesa de Diálogo Civil.*

*Se realizaron 3 sesiones durante el año 2015, dos de carácter ordinario, celebradas en fecha 20 de mayo y 23 de noviembre, y la tercera de ellas de carácter extraordinario, celebrada el 7 de octubre, y en la cual se contó con la participación del Lehendakari.*

*3. Apoyo y potenciación de las Agencias Vascas del Voluntariado.*

*Se otorgaron subvenciones a Hezkide Eskola y a la Fundación EDE para el fortalecimiento del voluntariado, a través de Gizalde y Bolunta, en los Territorios Históricos de Gipuzkoa y Bizkaia.*

*4. Labor de fomento y fortalecimiento de redes o federaciones de entidades de ámbito autonómico, mediante un Orden de subvenciones y convenios para aquellas redes o federaciones que sean verdaderamente representativas y de impacto social, manteniendo también subvenciones para el fortalecimiento de entidades orientadas a la configuración de redes o federaciones de ámbito autonómico de iniciativa e intervención social.*

*Se efectuó la convocatoria prevista en el Decreto 271/2012, de 4 de diciembre, por el que se regulan las subvenciones para el fomento de actividades del tercer sector en el ámbito de la intervención social en el País Vasco. En el marco de la línea de actividades para el fortalecimiento de la acción voluntaria y la participación asociativa en el ámbito de la intervención social, se presentaron 146 proyectos, de los que fueron subvencionados 86, desarrollados por 67 entidades, siendo la Inclusión social, los servicios sociales y la discapacidad y la dependencia los ámbitos de intervención con mayor presencia.*

*Así mismo, se otorgaron subvenciones a 24 asociaciones o federaciones de asociaciones que trabajan a favor de colectivos vulnerables para el desarrollo de actividades y programas.*

*5. Dinamización, apoyo y asistencia al Consejo Vasco del Voluntariado.*

*Durante 2015, el Pleno del Consejo Vasco de Voluntariado se reunió en dos ocasiones, destacando entre sus actividades la validación del proceso de renovación de la representación de las entidades en el mismo y la aprobación de las acciones a desarrollar en el ejercicio. El Grupo de Trabajo Permanente, por su parte, celebró nueve reuniones para orientar y preparar las sesiones del Pleno, proponer la adopción de acuerdos y velar por el cumplimiento de lo acordado.*

*6. Otras ayudas a entidades del tercer sector.*

*6.1 Se concedieron dos subvenciones nominativas a la FUNDACIÓN EDE-EDE FUNDAZIOA con los siguientes objetos:*

*• Financiar los gastos derivados de las actuaciones que realiza, a través del Observatorio del Tercer Sector, y durante el año 2015, para la realización del Libro Blanco del Tercer Sector Social de Euskadi. Y, en concreto, para el desarrollo del conjunto de las*

prozesuaren fase kualitatiboaren («orientazioak») barnean biltzen diren jarduerak garatzeko, jarraian dauden hauek:

* Tresnen ikerketa diseinatzea eta egitea.

* Informazioa biltzea.

* Informazioa aztertzea eta azken emaitzen transferentzia.

• Egiten dituen jarduketetatik eratorritako gastuak finantzatzea Hirugarren Sektorearen Behatokiaren bidez eta, 2015. urtean, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria egiteko. Hirugarren Sektoreko Behatokiaren jarduera-arloen arabera bereizi dira:

* Informazio- eta dokumentazio-jarduerak.

* Ikerketa jarduerak.

* Sustapen-jarduerak.

* Koordinazio-jarduerak.

6.2 Diru-laguntza izendun bat eman zitzaion «SAREEN SAREA» ELKARTEAri. Diru-laguntza hori, 2015. urtean, Hirugarren Sektore Soziala kontsolidatzera bideratutako jarduerak egitetik eratorritako gastuak finantzatzeko izan da, hori osatzen duten erakundeak indartuta. Jarraian zehaztu dira jarduera horiek:

* Euskadin sektore sozialeko sareak dinamizatzea.

* Partaidetza-foro publikoetako presentzia eta plataformekiko harremanak.

* Euskal gizartean Hirugarren Sektorea sustatzea.

* Euskal gizartea hirugarren sektore sozialaren errealitatearen eta bere ekarpenaren inguruan sentsibilizatzea.

*actividades que se enmarcan dentro de la fase cualitativa («orientaciones») del proceso de trabajo para la elaboración del Libro Blanco del Tercer Sector Social, y que se detallan a continuación:*

** Diseño de la investigación y elaboración de herramientas.*

** Recogida de Información.*

** Análisis de información y transferencia de resultados final.*

*• Financiar los gastos derivados de las actuaciones que realiza, a través del Observatorio del Tercer Sector, y durante el año 2015, desglosadas por cada una de las áreas de actividad del Observatorio del Tercer Sector:*

** Actividades de información y documentación.*

** Actividades de investigación.*

** Actividades de promoción.*

** Actividades de coordinación.*

*6.2 Se concedió una subvención nominativa a la ASOCIACIÓN «SAREEN SAREA» dirigida a financiar los gastos derivados de la realización, durante el año 2015, de las actuaciones encaminadas al desarrollo de la consolidación del Tercer Sector Social a través del fortalecimiento de las entidades que lo conforman, y que se concretan en las siguientes:*

** Dinamización de las redes del sector social en Euskadi.*

** Presencia en foros de participación públicos y relaciones con plataformas.*

** Promoción del Tercer Sector en la sociedad vasca.*

** Sensibilización a la sociedad vasca sobre la realidad y aporte del tercer sector social.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 3211 ENPLEGUA | *3211 EMPLEO* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK | *04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES* |
| PLANGINTZAKO ETA ENPLEGU BERRIKUNTZAKO ZUZENDARIA | *DIRECTORA DE PLANIFICACIÓN E INNOVACIÓN EN EL EMPLEO* |

## HELBURUA

1. 2014-2016 ALDIKO ENPLEGU PLANAREN KOORDINAZIOA, SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA
2. 2011-2014KO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIAREN EBALUAZIOA
3. GIZARTERATZE AKTIBORAKO EUSKAL PLANA (2012-2016) KOORDINATU, JARRAIPENA EGIN ETA EBALUATZEA
4. EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN 2007-2013 ALDIKO EUSKADIKO PROGRAMA OPERATIBOA KOORDINATZEA, KUDEATZEA ETA JARRAITZEA
5. 2014-2020 ALDIKO GAZTEENTZAKO ENPLEGU PROGRAMA OPERATIBOA KOORDINATZEA, KUDEATZEA ETA JARRAITZEA
6. EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN 2014-2020 ALDIKO EUSKADIKO PROGRAMA OPERATIBOA KOORDINATZEA, KUDEATZEA ETA JARRAITZEA
7. ARAUDIA GARATZEA
8. ENPLEGU ETA GIZARTERATZEAREN ESPARRUETAN EUROPAK DUEN IKUSPEGIA HARTZEA ETA EUROPAKO FINANTZAZIOA ESKATU DUTEN PROIEKTUENTZAKO AHOLKULARITZA
9. PARTAIDETZA, LANKIDETZA
10. PROIEKTU, JARDUNA ETA ESPERIENTZIA BERRITZAILEEI LAGUNTZEA
11. SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
12. LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN «ENPLEGUA» 3211 PROGRAMA FINANTZATZEA

## *OBJETIVO*

*1. COORDINACIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PLAN DE EMPLEO 2014-2016*

*2. EVALUACIÓN DE LA ESTRATEGIA VASCA DE EMPLEO 2011-2014*

*3. COORDINACIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PLAN VASCO DE INCLUSIÓN ACTIVA 2012-2016*

*4. COORDINACIÓN, GESTION Y SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA OPERATIVO FONDO SOCIAL EUROPEO PAÍS VASCO 2007-2013*

*5. COORDINACIÓN, GESTION Y SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA OPERATIVO DE EMPLEO JUVENIL 2014-2020*

*6. COORDINACIÓN, GESTION Y SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA OPERATIVO FONDO SOCIAL EUROPEO PAÍS VASCO 2014-2020*

*7. DESARROLLO DE NORMATIVA*

*8. INCORPORACIÓN DE LA VISIÓN EUROPEA EN LOS ÁMBITOS DE EMPLEO E INCLUSIÓN SOCIAL Y ASESORAMIENTO A POSIBLES PROYECTOS QUE SE ACOJAN A FINANCIACIÓN EUROPEA*

*9. PARTICIPACIÓN, COLABORACIÓN*

*10. APOYO A PROYECTOS, ACTUACIONES Y EXPERIENCIAS INNOVADORAS*

*11. SENSIBILIZACIÓN Y COMUNICACIÓN*

*12. FINANCIACIÓN PROGRAMA 3211 EMPLEO, LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO.*

## BETETZE MAILA

### 1. 2014-2016 ALDIKO ENPLEGU PLANAREN KOORDINAZIOA, SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

Enplegua berrindartzeko 2014-2016 Programa (EBP) 2013-2016 Enplegu Planaren (ENP) aurrekaria izan da, eta hura ordezkatu du, EAEko plangintza-tresna den aldetik.

Plana urteko ekintza-planen bidez zehaztu da, eta dagoeneko zehaztuta dauden programa operatiboei eta

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

### *1. COORDINACIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PLAN DE EMPLEO 2014-2016*

*El Programa de Reactivación del Empleo 2014-2016 (PRE) ha sido el antecedente del Plan de Empleo 2014-2016 (PEM 2014-16), que le ha sustituido como instrumento de planificación en la CAE.*

*El Plan se despliega a través de Planes de Acción anuales, que comprenden las iniciativas, los objetivos cuantitativos*

ardatzei eutsi zaie; ekintza-plan horietan, ekimenekin, helburu kuantitatiboak –espero diren inpaktuei dagokienez– eta aurrekontu zehatzak biltzen dira; aurrekontu zehatz horiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan islatuko dira.

*en términos de impactos esperados, y los presupuestos concretos, que se reflejan en los Presupuestos de la CAE, manteniendo los programas operativos y los ejes ya definidos.*

2015eko Bigarren Ekintza Planaren jarraipena egiteko, metodologia mistoa sortu da. Horretarako, azaroan bilerak egin dira Planarekin lotutako 18 zuzendaritzekin eta unitate kudeatzaileekin, eta datu kuantitatiboak bildu dira. Horiei esker, balorazio kualitatiboak lortu dira ekintzen garapenaz, emaitzez eta bilakabideaz; orobat, datu kuantitatiboak bildu dira, helburuen inguruan, enplegua sortzean eta mantentzean izandako eraginari dagokionez.

*Para el seguimiento del segundo Plan de Acción 2015 se ha desarrollado una metodología mixta mediante reuniones con 18 direcciones y unidades gestoras del Plan en noviembre y la recogida de datos cuantitativos, de tal manera que se han obtenido valoraciones cualitativas sobre el desarrollo, resultados y evolución de las acciones, así como datos cuantitativos con relación a los objetivos en términos de impactos en la creación y mantenimiento del empleo.*

2015aren amaieran, 2015eko Jarraipen Txostenaren zirriborro bat sortu da. 2016ko lehenengo bi hilabeteetan argitaratuko da.

*A finales de 2015 se ha dispuesto de un borrador de Informe de Seguimiento 2015, que se publicará en los dos primeros meses de 2016.*

Halaber, 2016ko Ekintza Planaren proposamen bat egin da, eta lehenengo bi hilabeteotan zuzendaritzak eta unitate kudeatzaileak erkatze-lanetan ari dira.

*Asimismo, se ha elaborado una propuesta de Plan de Acción 2006 y en estos dos primeros meses está en fase de contraste por parte de las direcciones y unidades gestoras.*

Horrenbestez, helburuak bete dira, 2016eko Ekintza Planaren ebaluazioari eta 2016ko Ekintza Planaren proposamenari dagokienez.

*En consecuencia, se han cumplido los objetivos en cuanto a la coordinación, evaluación del Plan de Acción 2015 y propuesta de Plan de Acción 2016.*

## 2. 2011-2014KO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIAREN EBALUAZIOA

## *2. EVALUACIÓN DE LA ESTRATEGIA VASCA DE EMPLEO 2011-2014*

2013an egindako barne-ebaluazioan agerian geratu zen Enpleguaren Euskal Estrategiaren emaitzak ebaluatzea oso zaila zela, adierazle gehiegi zeudelako eta horietako asko ez zirelako eskuragarriak.

*La evaluación interna realizada en 2013 puso de manifiesto la dificultad de evaluación de resultados de la EVE debido al profuso número de indicadores, muchos de ellos no disponibles.*

Hori horrela, 2014an, soilik estrategiaren lorpen garrantzitsuenak ebaluatzea proposatu da, Enpleguaren Euskal Estrategiaren indarraldian abian jarritako ekintza edo ekimen adierazgarrienen azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartuta.

*Así, en 2014 se acordó realizar una evaluación solamente de los principales logros de la misma, que combine un análisis cualitativo y cuantitativo de las acciones o iniciativas más significativas puestas en marcha durante el periodo de vigencia de la Estrategia Vasca de Empleo.*

Estrategiaren aldi baterako indarraldia igarota, 2015ean ebaluazio kuantitatiboaren eta kualitatiboaren diseinu- eta aplikazio-lanak egin dira, Enpleguaren Euskal Estrategiaren aurrerapen-mailaren inguruan.

*Transcurrido el período de vigencia temporal de la Estrategia, en 2015 se han realizado los trabajos de diseño y aplicación de la evaluación cuantitativa y cualitativa sobre el grado de avance de la Estrategia Vasca de Empleo.*

Zehazki, EEEaren adierazle kuantitatibo nagusiak aztertu dira, eta ebaluazio kualitatiboa eta parte hartzekoa sortu da; horretarako, galdetegi bat erabili da, non aurrerapena ebaluatu baita, Estrategiaren 5 ardatzak aintzat hartuta. Galdetegiak, orobat, bidea eman du iritziak biltzeko, erantzun irekien bidez, emaitzak izan dituzten eta emaitzarik izan ez duten neurrien inguruan, eta beharrezko neurri osagarrien inguruan. Hori guztia honako arlo hauei dagokienez: enplegagarritasuna, gazteria, kohesioa eta enplegu-sistema.

*Así, se han analizado los principales indicadores cuantitativos de la EVE y se desarrollado una evaluación cualitativa y participativa a través de la cumplimentación de un cuestionario en el que se ha valorado el grado de avance con relación a los 5 ejes de la Estrategia. El cuestionario también ha permitido una recogida de juicios en respuesta abierta acerca de las medidas que han obtenido resultados y las que no, así como medidas adicionales necesarias, todo con relación a ámbitos específicos de empleabilidad, jóvenes, cohesión y sistema de empleo.*

Parte hartzeko fase kualitatibo hau uztailetik irailera bitartean egin da (biak barne). Guztira 26 pertsona aritu dira: Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, tokiko/lurraldeko erakundeetakoak, enpresa-elkarteetakoak, enpresa-erakundeetakoak, Lanbide Heziketako ikastegietakoak, eta

*Esta fase cualitativa de participación se ha llevado a cabo durante los meses de julio a septiembre, ambos incluidos. En la misma han participado 26 personas, representantes del Gobierno Vasco, de instituciones locales / territoriales, asociaciones empresariales, organizaciones*

Gizarte Ekonomiako eta Hirugarren Sektoreko erakundeetakoak.

Ebaluazio-lanak ahalbidetu egiten du betetze-mailaren eta zuzentarau bakoitzaren esparruan egiteko dauden aurrerapen eta erronka nagusien inguruko ikuspegi orokorra lortzea, definitutako 6 ardatzetan.

2015eko azaroan amaitzen da 2011-2014rako Enpleguaren Euskal Estrategiaren ex post ebaluazioaren txostena.

### 3. GIZARTERATZE AKTIBORAKO EUSKAL PLANA (2012-2016) KOORDINATU, JARRAIPENA EGIN ETA EBALUATZEA

Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana 2013an onetsi zenetik ex ante ebaluazioa egin da, kontzeptualizazioan, diseinuan eta egite-prozesuan Planean eragin zezaketen ahuleziak eta indarguneak identifikatzeko. Horren ondorioz neurri asko artikulatu dira berriz, eta Planaren egitura soildu da.

2014an zehar honako hauek egin dira: tarteko ebaluazioa, gizartetik bazter geratzearen aurkako 273 ekintzako katalogoa eta gizarteratze-adierazleen aginte-koadroaren proposamen bat. Horretan guztian Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzek, foru-aldundiek eta EUDELek parte hartu dute.

2015. urtean, Plana koordinatzeko eta jarraipena egiteko, Zuzendaritzak bilerak egin ditu gizarteratze-arloko aholkularitza- eta partaidetza-organoekin; zehazki, honako hauek: bilera Gizarteratzeko Sailen arteko Batzordearekin (urtarrilaren 16an) eta Gizarteratzeko Erakundeen arteko Batzordearekin (urtarrilaren 23an). Bien helburua izan zen tarteko ebaluazioaren emaitza eta ekintzen katalogoa erkatzea, eta balorazioak eta proposamenak jasotzea, eman beharreko hurrengo pausoei buruz.

Ez da bilerarik egin Gizarteratzeko Euskal Kontseiluarekin Gizarteratze Aktiboko 2012-2016ko Euskal Planaren inguruan.

Zuzendaritzak, halaber, gizarteratzearen esparruko aholkularitza- eta partaidetza-organoen bileretan parte hartu du; zehazki, honako hauetan: Gizarteratzeko Erakundeen Arteko Batzordearen bilera, Gizarte Larrialdiko Laguntzen 4/2011 Dekretua aldatzeari buruzkoa (2015eko azaroaren 24an egin zen).

### 4. EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN 2007-2013 ALDIKO EUSKADIKO PROGRAMA OPERATIBOA KOORDINATZEA, KUDEATZEA ETA JARRAITZEA

Enpleguaren Plangintza eta Berrikuntza Zuzendaritza tarteko organismo izan da, EGFaren Euskadiko Programa Operatiboko (2013-2017) kudeatzaile gisa, honako hauei lotutako gai guztietan: Europako Gizarte Funtsaren unitate administratzailearekin koordinazio, jarraipen eta elkarrizketa etengabea (alde batetik, Enplegu eta Segurtasun Ministerioa eta Europako Batzordearekin; beste alde batetik, programan parte hartu dutenekin).

*empresariales, centros de FP y organizaciones de Economía Social y del Tercer Sector.*

*El trabajo evaluativo realizado permite obtener una visión general del grado de cumplimiento, así como de los principales avances y retos pendientes en el marco de cada directriz, en todos los 6 ejes definidos.*

*En noviembre de 2015 finaliza el Informe de Evaluación ex post de la Estrategia Vasca de Empleo 2011 – 2014.*

### *3. COORDINACIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL PLAN VASCO DE INCLUSIÓN ACTIVA 2012-2016*

*Desde la aprobación del Plan Vasco de Inclusión Activa, en 2013 se ha desarrollado una Evaluación ex ante, con el fin de identificar las debilidades y fortalezas que, en su conceptualización, diseño y proceso de elaboración pudieron afectar al Plan. Fruto de la misma, se han rearticulado muchas medidas y se ha simplificado la estructura del Plan.*

*Durante 2014, se desarrolla una Evaluación Intermedia, un catálogo de 273 acciones contra la exclusión social y una propuesta de cuadro de mando de indicadores de inclusión, todo ello con la participación de las direcciones del Gobierno Vasco y las diputaciones forales y EUDEL.*

*Durante 2015 y para la coordinación y seguimiento del Plan, la Dirección ha desarrollado reuniones con los órganos de asesoramiento y participación en el área de inclusión social y, específicamente, las siguientes: Reunión con la Comisión Interdepartamental para la Inclusión Social el 16 de enero y con la Comisión Interinstitucional de Inclusión Social el 23 de enero, ambas con el objeto contrastar el resultado de la Evaluación Intermedia, el catálogo de acciones y para recoger las valoraciones y propuestas en cuanto a los siguientes pasos a dar.*

*No se ha desarrollado una reunión con el Consejo Vasco para la Inclusión Social con relación al Plan Vasco de Inclusión Activa 2012-2016.*

*La Dirección también participa en reuniones de los órganos de asesoramiento y participación en el ámbito de la Inclusión social: en concreto, en la reunión de la Comisión Interinstitucional para la Inclusión Social sobre modificación del Decreto 4/2011, de Ayudas de Emergencia Social, desarrollada el 24 de noviembre de 2015.*

### *4. COORDINACIÓN, GESTION Y SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA OPERATIVO FONDO SOCIAL EUROPEO PAÍS VASCO 2007-2013*

*La Dirección de Planificación e Innovación en el Empleo ha ejercido la responsabilidad de Organismo Intermedio de Gestión del Programa Operativo FSE País Vasco, 2007-2013 en todo lo que se refiere a coordinación, seguimiento e interlocución continua con la Unidad Administradora del Fondo Social Europeo (Ministerio de Empleo y Seguridad Social y con la Comisión Europea por una parte y con los organismos participantes en el Programa por otra.*

2015eko mugarri nagusiak hauek izan dira:

- 2014ko Urteko Exekuzio Txostena sortzea.
- Administrazio-egiaztatzeko 29 txosten eta ko-finantzatzeko operazioen 18 egiaztatze-txosten in situ.
- Europako Batzordearen 4 ziurtatze ekonomiko.
- Programa Operatiboaren 1 Jarraipen Batzorde
- 4 koordinazio-bilera

*Los principales hitos de 2015 han sido:*

- *Elaboración del Informe Anual de Ejecución 2014.*
- *29 informes de verificación administrativa y 18 informes de verificación in situ de operaciones a cofinanciar.*
- *4 certificaciones económicas a la Comisión Europea.*
- *1 Comité de Seguimiento del Programa Operativo.*
- *4 reuniones de coordinación.*

### 5. 2014-2020 ALDIKO GAZTEENTZAKO ENPLEGU PROGRAMA OPERATIBOA KOORDINATZEA, KUDEATZEA ETA JARRAITZEA

Enpleguaren Plangintza eta Berrikuntza Zuzendaritza arduratu da Gazte Enpleguko Programa Operatiboaren euskal lurraldeko tartea kudeatzeaz, bitarteko organo gisa. Programa operatibo horren funtsa aldatu zen, jarduera-esparruari dagokionez (gazte onuradunen adina handitzea eta, horrenbestez, onuradun izan daitezkeenen kopurua areagotzea).

Testuinguru horretan, ezarritako helburuek urteko exekuzio txosten bat, gastuaren bi ziurtatze (Europako Batzordeari) eta ziurtatzea baino lehenagoko 15 egiaztatze-txosten aipatzen bazituzten ere, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Europako Gizarte Funtsaren unitate administratzaileak 2015ean ez du gaitu txostenak eta ziurtagiriak aurkezteko prozedurarik; beraz, horien ordez honako hauek egin dira:

- Jarraipenari buruzko bi berri.
- Adierazleen egokitzapenari buruzko agiri bat.
- Gazte Enplegurako Programa Operatiboan parte hartzeko sarbidearen deialdi-agindu bat euskal erakundeentzat.
- Programa operatiboan parte hartzea onesten duten hamaika ebazpen eta ezesten duten 8 ebazpen.
- Batzorde eta lantaldeen sei batzar, hala herrialdekoak nola Estatukoak.

### *5. COORDINACIÓN, GESTION Y SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA OPERATIVO DE EMPLEO JUVENIL 2014-2020*

*La Dirección de Planificación e Innovación en el Empleo ha ejercido la responsabilidad de Organismo Intermedio de Gestión del tramo regional vasco del Programa Operativo de Empleo Juvenil. Dicho Programa Operativo sufrió una modificación fundamental en cuanto a su ámbito de actuación (aumento de la edad de los jóvenes beneficiarios y en consecuencia del número de potenciales beneficiarios).*

*En este contexto, si bien los objetivos fijados se referían a la realización de 1 informe anual de ejecución, 2 certificaciones de gasto a la Comisión Europea y 15 informes de verificación previos a la certificación, la Unidad Administradora del Fondo Social Europeo del Ministerio de Empleo y Seguridad Social no ha habilitado en 2015 los procedimientos para la presentación de informes y certificaciones por lo que en su lugar las actuaciones realizadas han sido:*

- *2 reportes de seguimiento.*
- *1 documento de ajuste de indicadores.*
- *1 Orden de convocatoria de acceso a participación en el Programa Operativo de Empleo Juvenil para entidades vascas.*
- *11 Resoluciones aprobatorias de participación en el Programa Operativo y 8 Resoluciones denegatorias.*
- *6 reuniones de comisiones y grupos de trabajo tanto a nivel regional como estatal.*

### 6. EUROPAKO GIZARTE FUNTSAREN 2014-2020 ALDIKO EUSKADIKO PROGRAMA OPERATIBOA KOORDINATZEA, KUDEATZEA ETA JARRAITZEA

Enpleguaren Plangintza eta Berrikuntza Zuzendaritza tarteko organismo izan da, EGFaren Euskadiko Programa Operatiboko (2014-2020) kudeatzaile gisa. Funtsean, programa operatiboa prestatzeko eta martxan jartzeko lan egin da. Programa operatibo hori 2015eko abuztuaren 27an onetsi zuen Europako Batzordeak.

Testuinguru horretan, ezarritako helburuek urteko exekuzio txosten bat, gastuaren ziurtatze bat (Europako Batzordeari) eta ziurtatzea baino lehenagoko 15 egiaztatze-txosten aipatzen bazituzten ere, oraindik ere ezin da txostenik eta

### *6. COORDINACIÓN, GESTION Y SEGUIMIENTO DEL PROGRAMA OPERATIVO FONDO SOCIAL EUROPEO PAÍS VASCO 2014-2020*

*La Dirección de Planificación e Innovación en el Empleo ha ejercido la responsabilidad de Organismo Intermedio de Gestión del Programa Operativo FSE País Vasco, 2014-2020 fundamentalmente dirigida a la preparación del Programa Operativo y a la puesta en marcha del mismo. Dicho Programa Operativo fue aprobado por la Comisión Europea el 27 de agosto de 2015.*

*En este contexto, si bien los objetivos fijados se referían a la realización de 1 informe anual de ejecución, 1 certificación de gasto a la Comisión Europea y 15 informes de verificación previos a la certificación, todavía no se*

ziurtagiririk aurkeztu; beraz, horien ordez honako hauek egin dira:

- Programa operatibo onetsi bat.
- Jarraipen-batzorde eratzaile bat.
- Programa operatiboa kaleratzeko ekitaldi bat.
- Operazioak hautatzeko irizpideak deskribatzen dituen agiri onetsi bat.
- EGFaren Euskadiko Programa Operatiboan parte hartzeko sarbidea izateko deialdi-agindu bat, euskal erakundeentzat.
- Programa operatiboan parte hartzea onesten duten hamahiru ebazpen eta ezesten duten bederatzi ebazpen.
- Batzorde eta lantaldeen zortzi batzar, hala herrialdekoak nola Estatukoak.

*pueden presentar informes y certificaciones por lo que en su lugar los objetivos conseguidos han sido:*

- *1 Programa Operativo aprobado.*
- *1 Comité de Seguimiento constitutivo.*
- *1 Acto de lanzamiento del Programa Operativo.*
- *1 Documento de Descripción de los Criterios de Selección de operaciones aprobado.*
- *1 Orden de convocatoria de acceso a participación en el Programa Operativo FSE País Vasco para entidades vascas.*
- *13 Resoluciones aprobatorias de participación en el Programa Operativo y 9 Resoluciones denegatorias.*
- *8 reuniones de comisiones y grupos de trabajo tanto a nivel regional como estatal.*

### 7. ARAUDIA GARATZEA

Abenduaren 29an, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzak Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko Lege Aurreproiektua abiarazteko agindua eman zuen.

2015ean zehar, zenbait lan-bilera egin dira. Lanbideko eta Saileko zerbitzu juridikoko kide batzuek parte hartu dute, eta zenbait aurrerapen egin dira aurre-proiektuaren edukian; halere, ez dira nahikoak izapidetzen hasteko.

### *7. DESARROLLO DE NORMATIVA*

*El 29 de diciembre la dirección de Planificación e Innovación en el Empleo cursa orden de inicio del Anteproyecto de Ley del Sistema de Empleo Vasco y del Sistema Vasco de Empleo.*

*Durante 2015 se han desarrollado varias reuniones de trabajo, con la participación de personas de Lanbide y del servicio jurídico del departamento, y se producen algunos avances en el contenido del Anteproyecto, si bien no los suficientes como para iniciar su tramitación.*

### 8. ENPLEGU ETA GIZARTERATZEAREN ESPARRUETAN EUROPAK DUEN IKUSPEGIA HARTZEA ETA EUROPAKO FINANTZAZIOA ESKATU DUTEN PROIEKTUENTZAKO AHOLKULARITZA

